

XV. Jagon Jardunaldiak

Aurkezpena

Euskaltzaindiari, besteak beste, hizkuntza lantzea eta arautzea dagokio, gizartearen komunikaziorako tresna egokia izateaz gain, euskararen erabilera indartzen eta hedatzen joan dadin.

Erabilera hori sustatzea eta indartzea da, hain zuzen ere, Jagon Sailaren helburuetako bat eta, bereziki, bere Sustapen batzordearena. Erabilera hori noraino gauzatzen den eta sustatzeko zer gehiago egin behar den izan dugu hizpide azkenaldi honetan urtero antolatzen ari garen Jagon Jardunaldietan.

Baina Euskaltzaindiak Jardunaldi hauetan lortu nahi duena ez da gai bati buruzko errezetak prestatu eta ematea, interesa duzuen parte-hartzaile guztientzat eta guztien artean gogoetarako eta hausnarketarako gunea izatea baizik.

Aurreko urte bakoitzean gai baten inguruan aritu gara, hala nola, Euskal Herriko Elizbarrutietan euskarak bizi duen egoeraz; Europako hizkuntza aniztasunaren markoan Euskararen Corpus juridikoaz; Euskal Herriko hiru lurralde administratiboetan hizkuntzaren bilakaeraz; Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideez; eta iaz Etorriak eta euskara gaiaz.

Aurtengo XV. Jardunaldi hauetan, ustez behintzat, gai bizia hautatu dugu hausnarketarako. Bizia diot, bizitasunez beteak dauden gazte euskaldunek euskarari zer bizitasun ematen dioten, eman nahiko lioketen edota eman beharko lioketen baita gogoetarako gaia.

Eskerrik asko, zuen interesa agertuz, gaur hona etorri zareten guztiei.

Eskerrak, azkenik, antolaketa lanetan aritu zareten guztiei, Unesco etxeari, Sustapen batzordeko buruari, idazkariari eta batzordekide guztiei eta, bereziki, jardunaldi hauetan aurkezteko esperientziak, txostenak eta mahai inguruak prestatzen buru-belarri aritu zareten parte-hartzaile guztiei.

Ongi etorri eta egun probetxugarria izan dezagun.

Andres Iñigo
2010-11-19